

Deixia

Jardunera edo gogora ekarritako erreferente bat (izaki, leku zein denbora) seinalatzen duen elementu linguistiko bat da deixia. Perpausaren ia osagai guztiek dute nolabaiteko deixia:

- Orduan etxe honetan bizi ziren lagunak.

Anafora edota *katafora* deritze halako deixi-elementuei, erreferentearen kokagunea zein den.





Anafora

Elementu linguistiko batek ondotik ordezkutzen du aurretik aurkeztu den jardun zati bat. Adibidez:

- Montebideora joan ziren. Han bizi izan ziren luzaroan.





Katafora

Elementu linguistiko batek aurretik ordezkutzen du ondotik zehaztuko den jardun zati bat. Adibidez:

- Hau esan zidan: "zatoz, laztana!"



Katafora, beraz, oso loturik dago bi puntu ikurrarekin.

hau(ek):

honako (X) hau(ek):

honela:

hona (hemen):




Bi puntuak berek katafora-eginkizuna bete dezakete:

- *Gela handi bat dugu libre: areto nagusia.*

Bi puntuak

Laguntza handikoak dira testu zientifiko, tekniko eta akademikoetan. Eskuarki, paragrafoaren amaiera aldera geratzen dira bi puntuak, eta segidan doa katafora-esapidearen erreferentzia.



hau(ek):



- Hori jakinik, hau egin behar dugu:...
- Elorri zuria sendo haz dadin, ardura hauek bete behar dira: lur onera aldatu, inausi, ongarritu, gaitz eta izurriteei aurre egiteko tratamenduak egin...



- Demagun aurreko lehenengo erlazioa betetzen dela: $X_{4t} = 2X_{1t}$. Orduan, **hauek** dira β_1 -ren eta β_4 -ren ekuazio normalak:

$$\sum (Y_t - \hat{\beta}_0 - \hat{\beta}_1 X_{1t} - \dots - \hat{\beta}_K X_{Kt}) X_{1t} = 0,$$

$$\sum (Y_t - \hat{\beta}_0 - \hat{\beta}_1 X_{1t} - \dots - \hat{\beta}_K X_{Kt}) X_{4t} = 0$$

- Baldintza hauetan/hauekin** egingo dute ituna: nori berea ematea, eta gainerako guztia elkarren artean banatzea.

honako (X) hau(ek):



- Esperimentugile maltzurrek, ordea, honako hau frogatzeko erabili dute arau hori: txitek berdin jarraitzen diotela zientzialari bati (hau da, amatzat hartzen dutela), kubo gorri birakari bati, edo Jackson Pollocken estilora kutxa batean itsatsitako oilasko atal bananduei.

[Hauser, M.D.: *Gogo basatiak*, EHUPress, 2008 (euskaratzailea, Irene Aldasoro)]



- Bi estrategiarik egokienak honako hauek dira:
 - (A) Lehenengo hautagaiari joaten utzi (N-ren ehuneko $25 = 4$) eta horren ondoren lehenengo senargaia onartu.
 - (B) Lehenengo bi hautagaiei joaten utzi (N-ren ehuneko $50 = 4$) eta horren ondoren lehengo senargaia onartu.

[Paulos, John Allen: *Zenbakirik gabe bizi*, EHU, 2006 (euskaratzailea, Josu Zabaleta). (Moldatua).]

- Demagun honako egoera hau:...

hona (hemen):



- Hona zer dioen bigarren xedapenak: "Kontratua indarrean den bitartean..."

honela:



- Honela esan/adierazi/oihukatu zuen: "Entzun ondo, neba-arrebak,..."



Hona, laburbilduz, proposamena:

1. *Hau(ek)* erabili erakusle kataforiko gisa.

- Bertsolariak, ona izateko, baldintza *hauek* behar ditu: buru argia, bihotz zabala eta eztarri ona.
- Baldintza *hauekin*: ingeniaritza-titulua izatea, ingelesa eta txinera jakitea, gida-baimena izatea...

2. Argiago markatu nahi izatekotan, *honako* erabili, baina erakusle arrunta ezabatu gabe.

- Honako gertaera hauek:...

*honako gertaerak:...



3. Ez erabili honelakorik katafora-eginkizunean:


ondoren(go), jarraian, ondoko, hurrengo...

Izan ere, tradizio idatzian ez dira **esanahi eta funtzio horretan** inon agertzen. Kalko gordinak dira: gaztelaniazko 'el/lo(s) siguiente(s)' esapidearen ordaina emateko erabili ohi dira, baina ez dugu halakoen premiarik. Hona adibide desegoki batzuk:

- **Ondorengo datuak** eman behar dira: izen-abizenak, helbidea...
- **Hurrengo arloak** landuko ditugu: bioetika, zuzenbide biomedikoa eta bioteknologia.
- **Ondoko gaiak** aztertu zituzten mintegian: gas-fluidoetako lege fisikoak, pneumatikaren aplikazioa eta...

Hona erabilera egokiak:

- (Honako) datu hauek eman behar dira: izen-abizenak, helbidea...
- (Honako) arlo hauek landuko ditugu: bioetika, zuzenbide biomedikoa eta bioteknologia.
- Besteak beste, (honako) gai hauek aztertu zituzten mintegian: gas-fluidoetako lege fisikoak, pneumatikaren aplikazioa eta...



4. Ez jo alferrik erlatibozkoetara.

Esaldi hau gramatikala da, baina, estiloaren aldetik, hobe saihestea.

- (Honako) hau da egin behar duguna:...

Joskera naturala dugu adibide hauetan:

- (Honako) hau egin behar dugu:...
- Hona zer egin behar dugun:...

Gehiago jakiteko, klik egizu esteka honen gainean:

[Garzia, Juan \(2003\). “Katafora-esapideak bateratzeko bidean”, in Xabier Alberdi eta Iñaki Ugarteburu \(arg.\), *Espezialitate-hizkerak eta Terminologia: Jardunaldiak*, Leioa: EHU.](#)